

**INKISIZIOA ETA SORGINKERIA  
EUSKAL HERRIAN .**

Azken hamarkadetan, Inkisizioaren historiaz geroago eta jakinmin handiagoa izanik, ikerketa ugari sortu dira gai honetaz, eta batzuk, kalitate zientifiko-historiko handikoak; Espainia mailan egindako lanei buruz ari naiz. Inkisizioaren gaiak duen izaera ilun nahasia pixkanaka argituz doa, ekintza hori eta horren ondorioak bere une eta historigunean kokatuz.

Euskal Herriari dagokionez, gai honen interes handiak eraginik, hainbat adierazpen eta argitarapen oker egin izan dira, historia eta zientziarekin bat ez datozenak, interes ideologikoen arabera egindako adierazpenak... Oraingo kulturguneak, ideologiaz gehiegi kutsatua denez gero, lan serio eta historikoki zorrotzak direnen premia handia du; gertakari nabarmen edo eta oinaze eta heriotzeak bezalako portaera gaiztoen gaintetik, ikuspegi sozio-politiko, sozio-erlijioso-historiko osoa agertuko duten lanen premia nabari da.

Laburpen txiki honetan, bidea argitzeko, zenbait datu historiko emango ditut, haiei dagokien bibliografia erantsiz.

***a. Inkisizioaren historiaren etapak Espainian (1478-1834)***

***1. Inkisizioari buruzko lanak***

Inkisizioari buruz bibliografia izugarria dugu; E. Vander

Vekene-k eskaintzen digu gehiena. 1567.ean González Montano-ren izenez argitaratu zen liburuaren ondoren, hainbat joeratako argitarapenak agertu ziren, eztabaida latzak sortuz. Ikerlanik hoberenak XIX. mendean argitaratu ziren, adibidez, J.A. Llorente eta M. Menéndez Pelayo-ren lanak etab. Hala ere, XX. mende honetan egin dira aurrerapenik handienak, bai lehenagokoen urratsei jarraituz, bai bide berriak urratuz. Esaterako, H. Kamen-en lana dugu ), inkisizioak eta *arrazak* izan ditzaketen zerikusia aztertzen duelarik, baina arraza ez etnia gisa harturik, soziologikoki baizik; edo eta B. Bennassar-en lana, inkisizioaren problematika bereziki gizarte aldetik aztertuz. Beste ikerketa askoren artean , Espainiako Inkisizioaz, 1978an egin eta 1980an argitaratu zen Nazioarteko Lehen Symposium-a azpimarratu behar ; eta bereziki 1984ean BAC argitaletxean hasiera eman zitzaion talde-lana, *Historia de la Inquisición en España y América* izenekoa.

## 2. Etapa historikoak

Aurreko gertakariak. Euskal Herritik hurbilen, Frantzian eta Aragoan izandako gertakariak ditugu. Herexien aurka egiteko, Apezpikuen eskumena ez zela aski ohartu ziren, eliz doktrinan jakintsu ziren epaileak ere behar-beharrezko zirela. Frantzian, Aita Santuaren 1233ko buldaz eta Aragoako erreinuan, 1236ko buldaz, Inkisizioa ezarri zen.- - Ezarpeneko garaia (1478-1517) Aita Santuaren 1478ko buldaz eman zitzaion hasiera, eta Errege Katolikoek orduantxe izendatu zituzten lehen inkisidoreak.

Garai honetako ospetsuenen artean, besteak beste, Tomas Torquemada eta Francisco Jiménez de Cisneros aipatu behar.

- Ofizio Santuaren finkapena (1517-1569); «Argieginen» aurka burukatu zen garaia dugu hau; ospetsurik izatekotan, Fernando Valdés, inkisidore nagusia izan zen, 1547an zeregin horretarako izendatua; auzitaratu ospetsuen artean Bartolome Carranza, apezpiku euskalduna dugu (1559-1567).

- Indartsuen zegoeneko garaia (1569-1621). Garai honetan

Inkisizioa ekintza bizian aritu zen mairuen aurkako auzietan, XVI. mendeko mistiku ospetsuen bizitzak miatzen, sorginen auziak, Zugarramurdikoak adibidez, aztertzen...

- Krisi garaia (1621-1700).

- Gainbeherako garaia (1700-1834).

- Abolizioa (1808-1834). 1834ko uztailaren 15ean, gobernuaren dekretu batez inkisizioa abolitua izan zen.

## **b. Inkisizioa Euskal Herrian: ikerlanak**

Auzi sonatuak izan zirelako Inkisizioarekin hain lotura estua izan zuen sorginkeriarri buruzko bibliografiarik gehiena gerorako utziz, orain Euskal Herriko Inkisizioari berari ekingo diogu. Hainbat ikerlan partzial ditugu gai honetaz, baina azken urteotan ikuspegi orokorreko lanak ere burutu izan dira. Jakina denez, Ofizio Santua Kalahorran zegoen, Nafarroakoa hona aldatu bait zen, geroago Logroñora aldatzeko.

I. Reguera-k ikerlan interesgarriak argitaratu ditu. Gai honetaz ikerlanik gehien dauden herrialdea Nafarroa da, Zugarramurdiko auziari buruzkoak batez ere, baina badira gainerako herrialdeetako auziei buruzkoak ere.

## **c. Inkisizioaren jatorria eta garapena**

### *1. Aurreko gertakariak eta inkisizioa Nafarroan*

Gorago adierazi dugunez, Inkisizioa Frantzian ezarri zen 1233an, eta Aragoan 1236an; baina Erdi Aroan ez zegoen ez Gaztelan eta ez Nafarroan. Hala ere Nafarroan bai agertzen da era bereziz edo noizbehinkakoan; 1238an edo 1340an, gutxi gorabehera. Baina sorginak eta delitu erlijiosoak zigortzea bere egitekotzat hartu zuen aginte zibilak.

Eskumen edo jurisdikzioari buruzko auziak sortu ziren Tuteran. Hiri hau, lurrez Nafarroakoa izan arren, elizaz Tarazonaren eskumenekoa zen; hori dela eta, jadanik 1481ean,

Aragoako Inkisizioak bere aginpidea han ezartzeko eskubidea zuela uste zuen; beraz, Inkisizioa sartzerakoan, Nafarroaren aitzindari izan zen Tuterara. Fernando Katolikoak, 1512an, Nafarroako erreinua eskuratu zuenean, Inkisizioari bideak asko erraztu zitzaizkion eta 1513an ezarri zen Nafarroan.

Ez zuen egoitza finkorik eta orain Iruñean eta gero Lizarran ari zen, batetik bestera aldatuz; Luzaro gabe, Tuterara aldatu zen eta hemendik, 1521ean, behin betiko Kalahorrara.

### 2. Kalahorrako egoitza

Inkisizioa, 1521ean, Kalahorrara aldatzeko arrazoitzat (eta atxakiatzat), Frantziak Nafarroako erreinuaren hegoaldeko zatia berreskuratzeko agertu zuen gogoaz ezartzen da. Aldaketa honen arrazoi politikoak ukaezinak dira. Beste aldetik, Kalahorra, Nafarroa izan ezik, Hegoaldeko gainerako hiru herrialdeen apezpiku-hiria zen. 1562an, egoitza Logroñora aldatzeko arrazoiak ematen zituen agiri bat zabaldu zen. Inkisizioaren egoitza Kalahorran izan zen 1570era arte.

Inkisizioak bere komisariak euskal lurraldean zehar barreiatu zituen; esaterako, auzitegi gorenera igorritako zerrenda batetan, honako komisaria hauek agertzen ziren herrialde bakoitzeko: Nafarroan: Kaparroson, Lizarran, Faltzesen, Iruñean, Garesen, Tafallan, Alesbesen; Gipuzkoan: Mutrikun, Donostian, Tolosan, Bergaran; Bizkaian: Bermeon, Bilbon, Durangon eta Urduñan. Komisari hauen laguntzaile edo informatzaileak oraindik gehiago zabaldu zirela zeuden.

Beste aldetik, inkisidore nagusiek iparraldean, Bizkaian eta Gipuzkoan zehar egin zituzten joan-etorriak gogoratu beharra dago, 1523an Ayalak eta 1546-1547an Ibarrek egin zituztenak, adibidez.

### 3. Logroñoko egoitza

Egoitza Logroñora aldatu zeneko urtea 1570a izan zen. Makina bat arrazoi ematen dira lekuz aldatze hau egiteko.

Jeronimo Manrique-k burutu zuen. 1570az geroztik, Euskal Herriari dagozkion auzi ugari dira.

#### 4. *Iparraldea*

XVI. mendetik XVII.era bitartean Inkisizioak ospe handia lortu zuen hemen, geroxeago adieraziko ditugun sorginkeriaren aurkako auziak zirela eta ez zirela.

#### 5. *Eskumeneko barrutia*

Egoitza desberdinak izan eta 1521ean Kalahorrara lekuz aldatu zen Nafarroako Inkisizioak bere eskumenean zuen Hegoalde osoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa bera), Errioxa eta inguruko Soria eta Burgos-en zati batzu.

Ofizio Santuak askatasunez jokatu nahi zuen, eliz mugak eta politikako mugak zorrozki hartu gabe: ardura bat zuten bereziki gogotan: lurraldea kontrolpean izatea.

Euskal Inkisizioaren historia hain ongi ezagutzen duen J. Reguera-k, eskumeneko barrutiari buruzko hiru ezaugarri aipatzen ditu : a. Euskal Herriaren kristaukuntza azalekoa, b. Kokapen geografikoa, c. Ekonomi egoera eta Europarekiko merkatal harremanak. «Kristaukuntza azalekoa» delako baieztapen oker eta historiaren aurkako horretaz, hala ere, txunditurik gelditu naiz; 1984ean, XVI. mendean hitz eginik, hori esateari zentzugabekeriari handiena deritzot, funtsik gabeko baieztapen ulertezina eta nahaste handia sort dezakeena. Geroago ideia hori baztertu egin duela dirudi, 1985ean idatzitako artikuluan eta «Diccionario Enciclopédico Vasco»n argitaratuan ez baita agertzen, gainerako biak lehengo hartan agertzen direlarik (XIX, 568)...

#### **d. Helburuak: gizartearen egoera politiko eta erlijiosoa kontrolpean eta bide onetik eramateko ahalegina.**

Azken urteotan ikerlari batzuk, tradizioz zetozen klitxe edo eritzi finkoak haustea lortu dute, Inkisizioaren arazoa dagozkion

kontestu sozio-erlijiosoan ikertuz. Ideia berriak doaz agertuz, ikuspegi zientifiko berriz burututako ikerlanetan.

*1. Inkisizioaren izaera eta arrazoiak, atzo eta gaur.*

Inkisizioa, gizartea kontrolatzeko erabili zen tresna baliagarri eta eraginkorra izan zen, bai alde sozio-politikotik begiraturik eta bai sozio-erlijiosotik begiraturik. Bi aginteak, Inkisizioari dagokionez, bat zetozenez gero, biek interes berdintsuetarako erabili zuten: aginte erlijiosoak erlijio-batasuna zaindu nahi zuen; aginte zibilak, ordea, nolabaiteko kontrol sozial eta politikoa ziurtatu nahi zuen. Beraz, Inkisizioa erakunde mixtoa zen: herri-erakunde eta eliz-erakunde.

Gizarteak beti gorde nahi izan du bere izaera, bere originaltasuna, hots, elkarrekin harremanetan bizi izateko era berezia; horregatik, nola edo hala, gizataldeak gizarte-kontrola lortzeko bideen bila aritzen dira. Hala ere, gizataldeak era askotakoak, interes eta nahiera desberdinetakoak izanik, ondorioak ere korapilatsuak eta guztiz desberdinak izaten dira. Dena dela, gaur egunean geroago eta gehiago azpimarratzen da Inkisizioa «gizarte-kontrola» egiteko dela.

Gizarteko talde-kontzientziak bere identitatea osatzeko balioen sistema ezartzen du; bere iraupenerako balditzak sortzen ditu. Horrek santzio-sistema dakar berekin, portaera txarrak zehaturik. Eta gizarte-kontrolako sistemak bere erakunde, modu eta bitartekoak behar ditu.

Jadanik iragana den Inkisizio politiko-erlijiosoak, bere ideologia eta jarrera sozio-erlijioso bereziak izan zituen, eta guzti horren arabera jokatu ohi zuen. Baina Inkisizioa iraganeko gauza izan arren, oraindik erakunde laikoak gizarte-kontrola egiteari darraizkiola konturatzen gara; batzutan beharrezko kontrola, bidezkoa; beste batzutan, berriz, bidegabekoa, zentzugabekoa, txarra, XVI. eta XVII. mendeetako Inkisizioak bezala. Garai bakoitzak beretzat ezinbestekoak diren printzipio nagusiak ezartzen ditu; eta printzipio hauek egokien deritzon moduan bete erazten dira historian zehar; moral-balioak, fami-

lia, gizarte, komunitate eta erlijio-balioak, gizabanakoaren balioak, gizarte-maileenak nahiz edozein gizakirenak, giza eskubideetan adierazten denez. Hala ere, gizatalde batzutatik bestetara alde handia dago, balio hauei ezartzen zaien lehentasun edo garrantziari dagokionez; hori argi ikus daiteke batzuen eta besteen legeetan.

Nork ez du ikusten gaur eguneko egituretan Inkisizioaren kopia bat? Segurtasun legeetan, Barne ministraritzako erakundeetan, gaztigu-eskemetan, erre eta zigorretan, errepresio-legeen izaeran eta abarretan? Erregimen totalitario marxistetan, hau lotsagabeki nabarmentzen da; guztia erabakitzen du Estatuak: ekonomia, gizabanakoaren askatasuna, talde politiko bakarra dago etab. Gaur eguneko «inkisizio laikoek» XVI. eta XVII. mendeetako en egitura berberak onartu dituzte: erakundeak dira soilik desberdinak eta ekintza horiei buruz eman ohi diren eritziak: erlijioaren ordezkari politika dago, Elizaren ordezkari Alderdia, iragarritako Egiaren ordezkari marxismoa edo kapitalismoa, fededunen ordezkari alderdikideak, XVI. mendean exigitu ohi zen «odol garbiko» izatearen agiriaren ordezkari alderdiko izatearen karneta, Inkisizio-erakundearen ordezkari KGB edo CIA edo eta Barne ministraritza, isileko gartzelen ordezkari eroetxe edo «gulag» delakoak; antzinako liburu-zentsuren ordezkari oraingo isiltasun-kanpaina maltzurak eta nahi dena barregarri jartzeko propaganda. Gaur egun ukituezinak dira batzuek, adibidez, erregea, konstituzioa etab. Antzekotasuna, beraz, ez da fikziozkoa, bene- benetakoa baizik... Eta oraingo «inkisizio laiko» hauek, egoera dramatikoetan burutzen dituzten bidegabekeria lotsagarriak, inola ere kontrolaezineko bihurtu dira, hain zabalduak, gogorrak eta maltzurkeriaz hornituak dira...

## 2. *Erljio-ortodoxia*

XVI. mendeko Inkisizioa, lehenengoetan, gutxiengoak kontrolatzen ahalegindu zen; geroago kontrol hau zorrotzago bihurtu zen, ideia heterodoxoetara ere hedaturik; azkenez, ezkontza, sexualitatea eta abar hartu zituen bere ardurapean.

*aa. Herese eta Lutertarrak*

Protestantismo edo Luteranismoa agertu zenean, Inkisizioak lanik aski izan zuen Euskal Herrian, Kalahorra eta Logroñoiko bere auzitegietan. Lehengoetan, ideia protestanteak zabaltzen zituzten liburuen aurka egin zuen, eta gero, ideia horiek zituzten pertsonen aurka. Liburuei dagokienez, liburudendak begiratzen ziren, baina bereziki itsasoko eta lurreko mugak, beste merkatalgai batzuren artean ezkutaturik sartzea erraza bait zen; Bilbon eta Donostian, adibidez, ingeles batzu atxilotuak izan ziren... baina neretiko hitza bere esannahi zabalean eta gaizki erabiliz, beste gauza batzu ere halakotzat hartzen ziren, adibidez, biraoak, hitz sakrilegoak etab.

Esaterako, 1538tik 1558ra bitartean, luteranismo edo heresiagatik Kalahorrako auzitegian gaitzetsiak, 946 izan ziren, I. Reguerak dioskunez; horietatik hiru heriotzera kondenatuak izan ziren, lutertar izatea egozten zitzaien 62tatik hiru atzerritar, hain zuzen; gainerako guztiei badaezpadako liburuak zabaltzea, biraoak eta abar egozten zitzaien, 92 elizgizoneko kopuru handia ere barne zelarik.

*bb. Gutxiengo talde sozio-erlijiosoak: kristau-federa bihurtutako judu eta mairuak*

Kristau federa etorrita gero, zerbaitegatik lehengo erlijio-ohituretara itzultzen ziren judu eta mairuak, arretaz kontrolatzen zituzten eta maiz izan ziren auzitaratuak ere. Penak hainbat motatakoak izan ohi ziren: barkamena ondasunak galdurik, penitentzia heresia edo gaiztakeria utzi ondoren, isunak, erbestea... Hala ere gutxiengo talde hauen arazoa Euskal Herrian ez zen hain larria izan, Gaztelakoarekin gonbaratzen badugu batez ere.

*cc. Ezkontza eta jarrera sexualak*

Trentoko Kontzilioaren ondoren hasi zen Inkisizioa portaera sexualei arreta handiagoz begiratzen. Helburua, kristau-ezkontza ongi bideratzea, ezkontza eta familia bere zentzurik onenean



kontrolatuz. Beraz, kristau-ezkontzari ez zegokion edozein portaerari aurre egiten zion Inkisizioak:

- Bigamia. Estatuak berak ere geroago eta gogorrago zigortzen zituen bigamoak, Felipe II.aren agintealdian, 1566an adibidez, hamar urteko kondena galeretara emateraino.

Gogortze honek, Inkisizioak hartaraturik, lehendik zetorren gaitz bati azkena eman nahi zion. Kalahorrako barrutian, adibidez, 1548tik 1557ra bitartean, 80 bigamotik gora izan ziren gaitzetsiak, gizonezkoak gehiago emakumezkoak baino. Bizkaian ageri zen arazo hau nabarmenen. 1538tik 1557ra bitartean, 154 kasu dokumentatu izan ziren, baina han eta hemen sakabanatuak.

- Intzestua. Senide hurbilen arteko harreman sexuala edo beraien arteko ezkontza. Honetan maila desberdinak ziren. Horrela, 1547an, Kalahorrako Inkisizioan honako datu hauek agertzen dira: lau pertsonari «intzestu oso larriak» egozten zitzaizkien, 24ri «intzestu larriak», beste askori, berriz, hain larriak ez zirenak. Penak, intzestuaren larritasunaren arabera, gogorragoak nahiz bigunagoak izan ohi ziren, baina gehienetan ez zirela gogorregiak esan genezake.

- Haragikeria. Ezkontzatik kanpo izan ohi den harreman sexuala. Haragikeria bera baino, horren inguruko eritzia baztertu nahi zen batez ere, hau da, ezkontzatik kanpo harreman sexualak izatean, ez zela pekatu astunik egiten.

- «Dongakeria higuingarria». Naturaz kontrako pekatu sexualei, hots, abereekiko harreman sexualei eta sodomiar deitzen zaie. Hauei buruz, lehendik ere, erregeek emandako arauak oso zorrotzak ziren. Kalahorrako Inkisizio-barrutian «dongakeria higuingarri» honen lehen kasuak Ibarra inkisidoreak aurkitu zituen Bizkaian eta Gipuzkoan. Hala ere, auzitegi gorenak oso kontuz ihardun zuen delitu hauen aurrean. Kasu gutxi dira. Eta dokumentazioa ere urria da.

## e. **Sorginkeria eta Inkisizioa**

Oroitzapen historikoan, *sorginkeria* hitza, Inkisizioarekin edo antzeko gizarte-kontrolako erakundeekin bat egiten dugu; eta sorginkeriari dagokion aldetik, herri-erakundeak eta eliz erakundeak elkarrekin jokatu dutenez gero, egoera desegoki eta iskanbilatsua sortzen da herria eta agintaritzaren artean, akusatatu eta akusatzaileren artean, ondorio ezin larriagoekin: oinaze, heriotze, akusazio faltsu eta hutsekin.

XVI. mendearen amaieran eta XVII.aren hasieran, *gizartea* sorginkeriaren itsumenak edo sukarrak jota bizi zen, egiazkoa eta irudimenezkoa nahasiz.

Sorginkeriaren kontzeptua bera ere korapilatsua da. Sorginkerien munduan guztia nahasten da: ohitura zaharrak, magia eta erritoak aztikeriekin eta sineskeriekin, agindu nahia eta satanismoa, irudimena eta histeria, mitologia eta fantasia, moralitasuna askatasun eta obsesio sexualen aurrean, gehiegizko sineskortasuna, dirua lortzearren eritasunak sendatzeko plantak eginez, aztikerietan aritzen diren petrikilo edo sasimedikuen aurrean; kataroena bezalako joera heretikoak ere sorginkeriarekin nahasten dira; guzti horrek pobretasun eta ezjakintasunean, etsipenean, kristau-fedearen ahultasunean aurkitzen du ingurugirorik hoberena. Batzuk, sorginen talde sozialetan politizaziorik ere badela, uste dute...

### 1. *Sorginkeriaz ikerlanak Euskal Herrian*

Sorginkeriaz orokorki edo estatu-mailan burutu diren ikerlanez gainera, hainbat ikerlan ditugu euskal sorginkeriaz orokorki egindakoak, hauen artean J.C. Barojarenak aipatu behar; Hegoaldeko herrialdeetatik Nafarroari dagozkionak dira ugariak, eta bereziki Zugarramurdiko sorginkeria ikertzen dutenak; historiazko lanen artean Fl. Idoate-rena eta G. Henningsen-ena azpimarratu behar. Gainerako hiru herrialdeetako ikerlanak urriago dira.

Iparraldeko sorginkeriaz dugun bibliografia aski ugaria da; lan batzuk Iparralde osoan orokorki aztertzen dute sorginkeria, Lapurdikoa azpimarratuz, beste batzuek, berriz, herrialde bat edo beste dute ikergai bertako herriekin, baina Lapurdiko sorginkeria agertzen zaigu nagusiki.

## 2. *Zenbait argibide historiko*

Elizaren jokaera sorginkeria eta sineskerien aurrean, biguna izan da gehienetan; eta Inkisizioak berak ere ez zituen hain erraz sinesten zenbait jarrera, literatura antidemonikoa maiz arbuiatuz. Hala ere deabruaren edo Satanen gaia eztabaidan jartzean, egoera asko laztu eta gogortu ziren.

Sorginkeria Europa osoan hedaturik zegoen; beraz, ez zen Euskal Herriko fenomeno berezietarikoa, ezta antzik ere. Garai batzuetan bizikiago agertzen da toki batzuetan besteetan baino; esaterako, Hegoaldean, XVI. mendearen bukaeran, mendi aldean; Iparraldean, ordea, XVII. mendearen hasieran errotzen da batez ere; Biarnon ere problematika bizia zegoen.

Toki guztietan agertu zen. Sorginkeriaren leku sonatuak eta prozesu garrantzitsuak Frantziako gortean 1400go urteaz geroztik izan ziren, 1461 inguruan Arras-en, Ingalaterran 1576az geroztik, Alemaniako toki batzuetan 1623tik 1630era bitartean gutxi gorabehera, Eskozian, Eskandinavian eta Iparramerikan 1645etik 1693ra bitartean gutxi gorabehera.

Sorginen aurkako amorru zoroan, Europan, 20.000 lagun inguru sutan erreak izan ziren jazarpen garai hauetan; hala ere, Hegoaldean sorginen erreketarik ez zen gertatu XVI. mendearen azkeneko eta XVII. mendearen hasierako prozesu nagusietan. Harrigarria da Europakoaz gonbaratuz gero, sorginen aurka multzokako jazarpenik ez zela izan euskal prozesuetan; harrigarriak dira sorginen Sabbath edo Akelarreen deskribapenak ere. Penintsulan oihartzun handia izan zuen iparraldeko sorginkeriak; horrela, sorginen-aurkako prozesu horiek ziren iparraldean, Logroñoko auzitegian, ugariak; ez da ahaztu

behar Espainiako beste inguru batzuetan nahiko zeregin zutela auzitegiek judu eta mairuekin...

aa. *Hegoaldean*

XIV. eta XV. mendeetako kasu bakanak aparte utzirik, sorginkeriaren aurkako prozesuen garai garrantzitsuenak XVI. mendearen bigarren zatia eta XVII.aren lehen zatia dira. Argibide hauek I. Reguera, J. Caro Baroja eta G. Henningsen historialariengandik jasoak dira.

1466an jadanik, Gaztelak bere errege Enrique IV. agana jo zuen, sorginek egindako kalteengatik kexatuz eta haiak erabat desager zitezten neurri gogorak eskatuz. 1486an, Malleus, sorginkeriaren delituen kode ospetsua argitaratu zen.

1500 aldean Anboto-Durangon (Bizkaian) sorginkeria zabaldu zen. 1507an, Nafarroako beste toki batean ere bai, Kalahorrako Inkisizioak 29 emakume sutara kondenaturik.

Urte batzuk geroago, Aragoa eta Nafarroako Pirinioetan zehar zabaldu zen sorginkeria. Auzitegi Gorenak, berriz, guztia gogorrean itzali beharrean, zuhurtasunez jokatu zuen eta urtebeteko epea u Bargotako, Biana ondoko, intxixu edo aztiaren kasua sonatua izan zen 1523an. Urte berean Ayala inkisidoreak sorgin edo aztiak somatzen ditu Gipuzkoan.

1525ean, Nafarroan taldekako beste kasu garrantzitsu bat izan zen. Orreaga, Luzaide, Zaraitzu eta Erronkariko haranetan, hain zuzen. Balouza lizentziatua, Nafarroako Erret Kontseiluko ministraria, izendatu zuten intxixu edo aztien kontra egiteko; ekintza horrek bukaera ikaragarria izan zuen, hainbeste azti sutara jaurtikiz.

Gertakari larri hauek ikusiz, Inkisizioak esku hartzea erabaki zuen, aginte zibilak berari ez zegozkion arazoetan muturra sartzen zuela uste baitzuen. Eta arau ziurragoak eman zituen, hau da, gauzak hobeki jakin ezer egin aurretik eta gero zuhurtasunez jokatu; 1526an izan zen hau.

1527an beste kasu larri bat gertatu zen Nafarroan: hasiera, 11 eta 9 urtetako bi neskatxoren aurkako salaketaz izan zuen. Orduantxe izan zuen Ofizio Santuak bere lehen eskuhartze garrantzitsuetariko bat. 150 pertsona zeuden erruduntzat. Salaketak betikoak: batzarreak egin, umeak hil, uztak eta fruituak hondatu...

Urte berean Bizkaian ere zeharo kezkatuak zeuden. Horrela, Enkarterrietan justizia zibilak pertsona batzuk atxilotu zituen; salaketak goian aipatutako berberak ziren.

1529an Ayala inkisidorea agertu zen, Ofizio Santuaren jokaera barkabera eta moderatua erakutsiz

Gipuzkoan ere Batzarre Nagusiek, sorginen ugaritzeaz kezkatuak, gaitz hori nola erauzi aztertzen ihardun zuten 1530ean.

1533an, berriro Erronkari haranean sortu zen arazoa.

Eta Bizkaiko Enkarterrietan ere bigarren aldiz 1538an: Valdeolivas inkisidorea Bizkaira heldu zenean, 30 pertsona aurkitu zituen atxiloturik eta euren «delitua» aitorturik. Hala ere berak, hobeki aztertuz, beldurraren eraginez egin zituztela euren buruak errudun, atera zuen, eta bizpahiru soilik izango zirela benetan egozten zitzairen delituaren errudun. Herritarrak amorrubizitan zeuden sorginak sutara jaurtikiak izan zitezten, baina Ofizio Santuak herriko eragin edo presio horri jaramonik ez egiteko idazten dio.

Garai honetan, Inkisizioaren jarrera, kritiko eta sinesgogorra zen sorginkeriarri buruz. Haren jarrera arrazoizko eta heldua guztiz kontrajarria ikusten dugu herrian, justizia zibilean eta akordio antidemoniakoetan nabari zen jarrerarekin gonbaratuz, hauengan sorgin ustekoen aurkako joera itsu gogorra nabari baitzen. 1539an Valdeolivas inkisidoreak egindako txostenean zera adierazten da: birau heretiko eta deabruari dei egiteak ezjakintasunagatik zirela eta inguru hura luzaro apezpikurik gabe egonagatik.

Nafarroan berriro, 1539an, beste kasu bat izan zen Otxagabian; zirudienez, sorginek fedea ukatzera eramaten zituzten 8-11 urteko mutikoak, eta sorgindu ondoren, hil egiten omen zituzten. Inkisizioak aztertu zuen egoera. Lekuko ugari zegoen. Aginte sekularrak 34 pertsona atxilotuak zituen jadanik. Ofizio Santua, haietariko asko errugabeak zirela eta lekukorik gehienak adin txikikoak zirela, ohartu zen. 1540ko martxoan prozesua bukatu zegoen.

1540an, Iruñeko Patxeko apezpikuak, sorginkeriazko kasuetan gezurra eta kontua ugari zela eta, arretaz jokatzeko diotse apaizei, azti eta deabruak hartuak medikuagana eraman eta hark azter zitzala aholkatuz.

1555ean Gipuzkoako herri batzuetan ere neurri zorrotzak eskatzen ziren sorgintzat salatuz zituzten pertsona batzuen aurka, baina Auzitegi Gorenak ez zituen aintzakotzat hartu salaketa hauek, datu fidagarri eta frogarik ez zelako. 1567an ere baziren sorginkeri eta aztikeri kasuak Gipuzkoan.

Taldekako sorginkeri kasuak baziren Nafarroako mendi aldean ere 1575etik 1576ra bitartean, eta Araizen 1595ean.

XVII. mendearen hasieran prozesu ospetsuak izan ziren, Lapurdikoa, adibidez, Pierre de Lancre-ren errepresioarekin, gero ikusiko dugunez; eta 1609tik 1610era bitartean, Lapurditik hurbil, Pirinioetan, Zugarramurdiko sorginen aurkako prozesu sonatua. Zugarramurdik eta Urdazubik 300 biztanle zituzten gutxi gorabehera eta elizaz Urdazubiko abataren eskumenean zeuden. Prozesuan 32 sorgin edo intxixu agertzen dira, 25 azken herri honetakoak. Prozesuan nabari denez, sorgin-antolamendurik bazen han: propagandistak zeuden, agintzaria edo promesa egin ohi zen, akelarreko hasi-masiak irakasten zitzaizkien, maisuak bere ideologia irakasten zuen, beste batzuetan umeak biltzen ziren, gaiztakeriak egiteko trebakuntza ematen zitzaien etab.

Prozesu honetan, Iruñeko apezpikuaren jokaera oso argigarria izan zen eta are gehiago Adolfo Salazar eta Frías

inkisidorearena; sorginkeri salakuntzen aurrean sinesgogor agertzen zen hau eta salakuntzarik gehienak gezurrezkoak zirela, edo hobeki esan, irudimenaren ondorioa zirela uste zuen. Miaketa zorrotzak egin ondoren, maiz frogatu ahal izan ziren lekukoei eta baita sorgintzakoei ere, esaten zituzten gauzak benetan ez zirela gertatu. Oso garrantzitsu eta onuragarria izan zen Salazar-ek Auzitegi Gorenean izan zuen eragina...

Sorginkeri arazoak indarra galduz joan ziren denboraren joan-etorrian. Geroago Hondarribian eta abarretan izandako gertakariak ere ezagutzen ditugu.

#### bb. *Iparaldean*

Sorginkeriak Frantzian eta Iparaldean itxura ikaragarri eta benetan larria hartu zuen. Sorginkeriaren atxakiaz, baina aurretiko prozesu politikoetan, Santa Juana de Arco, tenplarioak eta abar sutara bidaliak izan ziren. Hainbat herrialdetan mutzoka atxilotu zuten jendea eta askok sutan izan zuten euren biziaren azkena... Histeriak eta itsumenak jota zeuden asko, deabruak harturik zeudela sinestearino; XVII. mendean zen hau.

Hego-Mendebaldean alde handia zegoen toki batzuetatik besteetara: Bordel inguruan sorginkeri kasuak bakanak ziren, baina Landeetan, Iparaldean eta Biarnon ugari.

Iparaldean 1329an eta 1450ean izan ziren jadanik kasu batzuk. Baina XVI. mendearen azkenerantz zabaldu zen benetan sorginkeria. Horrela, Nafarroa Beherean, 1580an Mixeko diputatuek biltzarrean honako hau adierazten zuten: Donapaleu ondoan dagoen Amenduze-Unasoan ia herri osoan zabaldua zela sorginkeria. 1594ean, herri bakoitzak, arazo hori aztertzeko, bi pertsona hautatzea erabaki zen.

Baina XVII. mendeko lehen hamarkadan egin zen entzute handikoa Iparaldeko sorginkeria, Lapurdikoa batez ere. 1606an (1605-1607) Bordeletik Baiona eta Donibane-Lohizunera bidali zuten batzorde bat eta prozesua egin ondoren 16 emakume kondenatu zituen. Hala ere, arazo hau, obsesioz beteriko Pierre

Lankre ospetsuaren garaian jarri zen gori-gori; sorginkeriaren jazarpena Lapurdin gaiari buruz argitaratutako lanagatik egin zen ospetsu. 1609an, erregearen aginduz, Lapurdiko sorginkeriaren auziak erabakitzeke epaile berezi izendatua izan zen. Gizartea beldur eta histeriaren mende zegoen; esaterako, 1609an, umeak taldeka lo egiten zuten elkarrekin elizetan, toki sakratuak zirenez gero, deabruaren erasoetatik aske izango zirelakoan.

Lancre-ren batzordeak 25 parrokia bisitatu zituen lau hilabeteren buruan. 1612an argitaratu zen *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* liburutik ezagutzen dugu hark sorginkeriaren aurka erabiltzen zituen bitartekoak, eta zein zen, haren ustez, Lapurdiko sorginkeriaren errealitatea. Sorginkeriaren obsesioz irudimena zoro zuen. Lapurdin *Sabbat*-era hegan egiten zuten 2.000 sorgin inguru omen ziren. Emakume, ume eta apaizak... sorginkeriaz kutsatuak; apaiz intxixu edo aztiak batez ere bere onetik ateratzen zuten.

Prozesu hau zein ikaragarria izan zen, eragin zituen heriotzeetan agertzen da argi eta garbi; Donibane-Lohizunen eta Ziburun batez ere. Veillet kalonjeak 600eko kopurua ematen digu 1700 inguruan. Veillet-ek berak, sorginei buruz, sineskorregia izatea egozten dio Lancre-ri.

Esaterako, Askaingo erretorea, Argibel, 75 urtekoa, *Sabbat*-en ikusi zutela eta salatu zuten bi emakumek eta kondenatua izan zen. Ziburuko erretorea eta honen laguntzailea «meza beltzean» esku hartu zutelako salakuntzaz sutara kondenatuak izan ziren...

Epaileek bost apaiz heriotzera kondenatu nahi zituztenean, Beltran de Echauz apezpikuak galdeketak berberak egin ahal izatea eskatu zuen, eta baita lortu ere Henri IV.aren bitartekotasunez; horrela apaizak Bordeleko parlamentuaren eskumenetik aske geratu ziren.

Pierre de Lancre epailearen batzordeak, lau hilabeteren buruan, 1609ko azaroaren 1ean, bukatu zuen bere egitekoa. Aktak galdu egin ziren; baina aipaturiko liburua gelditu da.



Prozesu hau eta honen ondorioak dramatismo eta histerismo lotsagarritz agertzen zaizkigu. Elizak ahalegin handiak egin zituen egoera nahasi hori argitu eta baretzeko: bi josulagunen bitartez baketze-kanpaina egin zen, barkamen eta leuntasunezko mezua aldarrikatuz. Ez da ahaztu behar Lapurdiko sorginkeriararen arazo honetan Elizaren eskuhartzea baketzaile eta neurritsua izan zela; gogorkeriara jotzearen aurkakoa ia beti. Salatuak izan ziren Iparraldeko euskaldun askok Hegoaldera egin zuten ihes, Inkisizioaren menpean izatea Bordeleko epaile ikaragarrien menpean izatea baino nahiago zutelako. Gogoan izatekoa da hau ere: dirudienez, auzitegi zibilak eliz auzitegiak baino sineskorrago eta basatiago agertzen zirela sorginkeriarari zegokionez.

*Julen Urkiza*